

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Egingo dugun produktua tenis pilota bat da eta kargatzaile bezala lan egiten du. Honek, egiten duen mugimenduarekin energi zinetikoa eta beroa (boteak ematean sortzen duena) energia elektriko modura eraldatzen du eta honek mugikorra, ordenagailua eta horrelako gailuak kargatzeko balio du. Gailuaren %80a kargatzeko 50 bote behar ditu gutxi gorabehera.

Gure produktuak edozein gailu entxuferik gabe kargatzeko aukera eskaintzen du, elektrizitateko fakturan aurrezten duzu, oso praktikoa da poltsikoan edo zorroan eramateko eta gutxi hori gutxi balitz, bere prezioa guztien eskura dago.

Eskaintzen dugun produktua bere alde dibertigarria du, biradera bidez kargatzen diren kargatzaile bezalakoak baitira baina pilota modura. Honek esan nahi du nahi beste denbora egon ahal zarela jolasten, pilota normal bat balitz bezala. Jolastu ostean usb entxufea babesten duen tapa kendu eta badago, kargadore eramangarria.

Pilota modernoagoa izateko pertsonalizatzeko aukera ematen dugu. Zure izena ipini ahal duzu edo zuk nahi duzuna. Praktikoagoa izateko ere jarri ahal diozu giltzatakoea eta horrela beti zurekin eramango duzu.

Zerbitzu hau ematean, bakarrik aste bat gehiago itxaron behar da, eta listo, badaukazu pilota-kargatzaile modernizatua.

